**DURANGOKO TRAFIKO ETA APARKAMENDU ORDENANTZA**
**ORDENANZA DE TRAFICO Y APARCAMIENTO DE DURANGO**

- Aldaketen hasierako onarpena / Aprobacion inicial Modificaciones:
  Osoko Bilkura/Pleno: 22.11.30 / 30.11.22

- BAOn argitalpena / Publicacion BOB: 231 zk., 22.12.05 / 05.12.22.

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2022/12/05/II-5375_eus.pdf?hash=ebf28bfde1ee28fdd359b5bfbe07466a

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2022/12/05/II-5375_cas.pdf?hash=3ad3c1704fce81f1540d4a16af238044

- Jendaurrean egoteko epearen amaiera: 22.12.28.
- Fin de plazo de informacion publica: 28.12.22.
- Alegazioak / Alegaciones: EZ / NO.
- BAOn aldaketen argitalpena / Publicacion BOB modificaciones:
  248 zk., 22.12.30 / 30.12.22.

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2022/12/30/II-6113_eus.pdf?hash=de40468c7a845172b4d09fc9a447952f

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2022/12/30/II-6113_cas.pdf?hash=d3cd46bf528426b38cb5f9c8c5bbbea0

## AURKIBIDEA


**I. KAPITULUA ORDENANTZAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA........................................3**
1. artikulua.- XEDEA............................................3
2. artikulua - DEFINIZIOAK....................................3
3. artikulua.- TAO GUNEAK ETA SEKTOREAK........5

**II. KAPITULUA APARKATZE-ARAUTUKO SISTEMA.........................................................9**
4. artikulua.- KUDEAKETA-, ZAINTZA- ETA KONTROL-SISTEMA.............................................9
5. artikulua.- SEKTORE URDINEN ETA BERDEEN EZAUGARRIAK.....................................................9
6.-artikulua.- ORDUTEGIAK...............................10
7.- artikulua - TARIFAK.......................................10
8. artikulua.- SALAKETAGATIKO ORDAINKETA....10

**III. KAPITULUA ERREGIMENAK........................11**
9. artikulua- EGOILIARRAK..................................11
10. artikulua- GREMIOAK...................................14
11. artikulua.- AUTOESKOLAK............................16
12. artikulua-. TAXIAK, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK ETA ANBULANTZIAK.......................17
13. artikulua.- BAIMEN BEREZIAK.......................17
14.- artikulua- SALBUESPENAK...........................18

**IV. KAPITULUA ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.....................................................19**
15. artikulua.- XEDAPEN OROKORRAK................19
16. artikulua.- ARAU-HAUSTEAK.........................19
17. artikulua.- IBILGAILUA IBILGETZEA...............21

**IV KAPITULUA XEDAPENAK.............................21**
XEDAPEN ERKIDEAK...........................................21
XEDAPEN GEHIGARRIAK....................................22
AZKEN XEDAPENAK............................................23

**I. ERASKINA. TAO SISTEMAREN GUNEAK........24**
**II. ERASKINA. 1. GUNEKO SEKTOREAK.............25**
**III. ERASKINA. 2. GUNEKO SEKTOREAK............26**
**IV. ERANSKINA. 3. GUNEKO SEKTOREAK.........27**
**V. ERANSKINA. 4. GUNEKO SEKTOREAK..........28**


## ÍNDICE


**CAPÍTULO I OBJETO DE LA ORDENANZA Y ÁMBITO DE APLICACIÓN ................................................. 3**
Artículo 1. - OBJETO...............................................3
Artículo 2.- DEFINICIONES.......................................3
Artículo 3.- ZONAS Y SECTORES OTA ......................5

**CAPITULO II SISTEMA DE ESTACIONAMIENTO REGULADO....................................................... 9**
Artículo 4.- SISTEMA DE GESTIÓN, VIGILANCIA Y CONTROL ............................................................9
Artículo 5.- CARACTERÍSTICAS DE LOS SECTORES AZULES Y VERDES..................................................9
Artículo 6.- HORARIOS .........................................10
Artículo 7.- TARIFAS .............................................10
Artículo 8.- ABONO DE DENUNCIAS.....................10

**CAPITULO III REGÍMENES................................ 11**
Artículo 9.- RESIDENTES........................................11
Artículo 10.- GREMIOS .........................................14
Artículo 11.- AUTOESCUELAS...............................16
Artículo 12.- TAXIS, PERSONAS CON DISCAPACIDAD Y AMBULANCIAS .................................................17
Artículo 13.- AUTORIZACIONES ESPECIALES.........17
Artículo 14.- EXCLUSIONES ..................................18

**CAPÍTULO IV INFRACCIONES Y SANCIONES .................................................... 19**
Artículo 15.- DISPOSICIONES GENERALES.............19
Artículo 16.- INFRACCIONES.................................19
Artículo 17.- INMOVILIZACIÓN DEL VEHÍCULO.....21

**CAPÍTULO VI DISPOSICIONES .......................... 21**
DISPOSICIONES COMUNES ..................................21
DISPOSICIONES ADICIONALES..............................22
DISPOSICIONES FINALES .....................................23

**ANEXO I. ZONIFICACION DEL SISTEMA OTA ...... 24**
**ANEXO II. SECTORES ZONA 1 ........................... 25**
**ANEXO II. SECTORES ZONA 2 ........................... 26**
**ANEXO IV. SECTORES ZONA 3 .......................... 27**
**ANEXO V. SECTORES ZONA 4 ........................... 28**

**DURANGOKO TRAFIKO ETA APARKAMENDU ORDENANTZA**

**I. KAPITULUA**
**ORDENANTZAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA**

**1. artikulua.- XEDEA**

Ordenantza honen helburua I. eranskinean ezarritako aplikazio eremuan araututako hiri barruko bideetan aparkatzeko zerbitzu publikoa arautzea da.

TAOk araututako aparkalekuetan, aparkatze mugatuko neurriak ezartzen dira (funtzionalak, espaziozkoak eta denborazkoak) aparkatze espazioa optimizatzeko, eskariaren arabera ibilgailuen txandatze egokia bermatzeko eta gune bakoitzeko alor nagusiak errespetatzeko (etxebizitza, komertzioa eta/edo oinarrizko osasun-zerbitzuak); horrek hiritarrei merkataritza- eta/edo zerbitzu-kudeaketak errazten dizkie. Horrela, kaltetutako guneetako merkataritza- eta zerbitzu-jardueretako komertzio txikiari laguntzen zaio, eta baita mugikortasun jasangarriagoari ere.

**2. artikulua - DEFINIZIOAK**

Ordenantza honen ondorioetarako, kontzeptu hauen definizioa eman da:

**2.1 Egoiliarrak**

3. artikuluan deskribatzen diren gune edo kaleetan erroldatutako pertsona fisikoak dira. Gune edo kale horiek aparkatze-erregimen arautua dute.

**2.2 Gremioak**

Etxeko konponketei edo obrei lotutako jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsonak, adibidez: Durangoko udal barrutian kokatutako igeltserotza-, iturgintza-, arozgintza-, eskaiolismo-, elektrizitate-, margolaritza-, muntaia-, kristalgintza-jarduerak eta hiri lanetako obrak oro har, Durangoko udalerrian bizitegi-

**ORDENANZA DE TRÁFICO Y APARCAMIENTO DE DURANGO**

**CAPÍTULO I**
**OBJETO DE LA ORDENANZA Y ÁMBITO DE APLICACIÓN**

**Artículo 1. - OBJETO**

Esta Ordenanza tiene por objeto la regulación del servicio público de estacionamiento de las vías urbanas reguladas en el ámbito de aplicación establecido en el anexo I.

En el estacionamiento regulado por la OTA, se establecen medidas de estacionamiento limitado (funcional, espacial y temporal), optimizando el espacio de aparcamiento, de tal forma, que se pueda garantizar la rotación adecuada de los vehículos en función de la demanda a atender, y de acuerdo, a los ámbitos predominantes en cada zona (residencial, comercial y/o servicios básicos sanitarios), facilitando a la ciudadanía llevar a cabo gestiones comerciales y/o de servicios. De esta forma, la generación de actividad comercial y de servicios en beneficio del pequeño comercio en las zonas afectadas, así como una movilidad más sostenible.

**Artículo 2.- DEFINICIONES**

A efectos de la presente ordenanza se definen los siguientes conceptos:

**2.1 Residentes**

Son residentes aquellas personas físicas empadronadas dentro de su respectiva zona o calle transitoria descrita en el artículo 3, en las que se establece el régimen de aparcamiento regulado.

**2.2 Gremios**

Aquellas personas que realizan actividades económicas relacionadas con reparaciones u obras domiciliarias, como son: albañilería, fontanería, carpintería, escayolismo, electricidad, pintura, montaje, cristalería, trabajos de obra civil en general, se incluyen servicios de reparación de elementos o bienes-

erabilerarekin lotutako elementuak edo ondasun higigarriak konpontzeko zerbitzuak sartzen dira, etxeko elektrogailuak.

muebles vinculados al uso residencial como electrodomésticos. Todas ellas radicadas en el término municipal de Durango.

**2.3. Turismoa**

Gutxienez lau gurpil eta gidariaren eserlekuaz gain gehienez zortzi eserleku dituen automobila, pertsonen garraiora zuzendutakoa. Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskinaren arabera, lehenengo zifra taldean 10 inguru daude.

**2.3 Turismo**

Automóvil destinado al transporte de personas que tenga, por lo menos, cuatro ruedas y que tenga, además del asiento del conductor, ocho plazas como máximo. De acuerdo al anexo II del Reglamento General de Vehículos, se clasifican con un 10 en el primer grupo de cifras.

**2.4. Ibilgailu misto moldagarria**

Bereziki salgaiak eta pertsonak garraiatzeko –biak aldi berean edo ez– prestatutako automobila, gehienez ere gidaria barne 9 pertsona garraiatu ditzakeena. Eserlekuak gehituta, behin-behinean bertako zamaren zati bat edo zama osoa pertsonaz ordezkatu daiteke. Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskinaren arabera, 31 dute lehenengo zifra taldean.

**2.4 Vehículo mixto adaptable**

Automóvil especialmente dispuesto para el transporte, simultáneo o no, de mercancías y personas hasta un máximo de 9, incluido el conductor, y en el que se puede sustituir eventualmente la carga, parcial o totalmente, por personas mediante la adición de asientos. De acuerdo al anexo II del Reglamento General de Vehículos, se clasifican con un 31 en el primer grupo de cifras.

**2.5. Hiru gurpileko ibilgailuak eta kuatrizikloak**

**Hiru gurpileko ibilgailuak**

Hiru gurpil simetriko dituen automobila, barne-errekuntzakoa baldin bada, 50cm$^3$ baino zilindro-bolumen handiagoko motorra duena eta/edo 45 km/h baino handiagoa den eraikuntzako gehieneko abiadura duena.

**Kuatrizikloa**

Tara 400kg-koa edo txikiagoa edo salgaien garraiora zuzendutako ibilgailua bada 550kg-koa edo baino txikiagoa duen lau gurpileko ibilgailua, motorraren potentzia garbi maximoa 15 KWkoa edo txikiagoa duena. Ibilgailu elektrikoetan, bateriaren masak ere zifra horietan sartu behar du.

Kuatrizikloak hiru gurpileko ibilgailuen kategoria berekoak dira. Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskinaren arabera, bi ibilgailu motek 06 dute lehenengo zifra taldean.

**2.5 Vehículo de tres ruedas y cuatriciclos**

**Vehículo de tres ruedas**

Automóvil de tres ruedas simétricas, provisto de un motor de cilindrada superior a 50 cm3, si es de combustión interna, y/o con una velocidad máxima por construcción superior a 45 km/h.

**Cuatriciclo**

Automóvil de cuatro ruedas cuya masa en vacío sea inferior o igual a 400 kg, ó 550 kg si se trata de vehículos destinados al transporte de mercancías, no incluida la masa de las baterías para los vehículos eléctricos, y cuya potencia máxima neta del motor sea inferior o igual a 15 KW.

Los cuatriciclos tienen la consideración de vehículos de tres ruedas. De acuerdo al anexo II del Reglamento General de Vehículos, ambos vehículos se clasifican con un 06 en el primer grupo de cifras.

**2.6. Trantsizio-kalea**

TAO gune batekoa ez den baina horietakoren baten azken zatiarekin mugakide den kalea, eta bertan bizi den jendeari mugakide duten TAO guneko egoiliarren erregimena ematen diena.

**2.6 Calle de transición**

Calle que, no estando incorporada a una zona OTA, limita con el tramo final de una de ellas y dota a las personas que residen en ella del régimen de residentes de la zona OTA con la que colindan.

**3. artikulua.- TAO GUNEAK ETA SEKTOREAK**

**3.1. TAO guneak**

TAO aparkatze-sistema ezartzen den espazioak I. eranskinean adierazitako 4 gunetan banatzen dira, zeinak korrelatiboki zenbakituak baitaude eta dagokien seinalizazio horizontalaren eta bertikalaren bidez behar bezala mugatuta eta adierazita baitaude.

Guneek egoiliar-egoerak balioa duen espazioa mugatzeko balio dute, eta baita baimendutako aparkatze-denbora maximoa agortu ondoren hiru ordu igaro arte aparkatzea debekatuta dagoen espazioa ere.

TAO guneen barnean erreserbak egiteko aukera izango dute erabiltzaile jakin batzuek, eta, ahal dela, seinale espezifikoen bidez arautuko dira.

**Artículo 3.- ZONAS Y SECTORES OTA**

**3.1 Zonas OTA**

Los espacios en los que se implanta el sistema de estacionamientos OTA se divide en 4 zonas indicadas en el Anexo I, numeradas correlativamente, y convenientemente delimitadas e indicadas, mediante la oportuna señalización horizontal y vertical.

Las zonas sirven para delimitar el área en que es eficaz la condición de residente y, a su vez, el espacio en el que agotado el periodo máximo de estacionamiento autorizado, no es posible volver a estacionar en la misma zona hasta pasadas tres horas.

Dentro de las zonas OTA se podrán habilitar reservas para determinadas personas usuarias que se regirán preferentemente por la señalización específica.

**3.2. TAO sektoreak**

Hiru sektore mota ezarri dira, eta elkarren artean bereizita daude bakoitzean aplikatu beharreko aparkamendu mota kudeatzeko. Behar bezala mugatuta eta markatuta daude seinaleztapen bertikalez eta horizontalez.

**a) Sektore urdina**

Marra urdinez mugatutako aparkalekuak, egoiliarrei zein ez-egoiliarrei zuzenduak, eta aurrez bakoitzari dagokion kuota ordaintzea eskatzen dutenak.

Egoiliarrek beren gunean dauden gune urdinetan denbora mugagabez aparkatu ahalko dute eta tasa gehigarririk ordaindu gabe.

**3.2 Sectores OTA**

Se establecen tres tipos de sectores, diferenciados para la gestión del aparcamiento aplicable en cada uno de ellos y convenientemente delimitados e indicados mediante la señalización vertical y horizontal oportuna.

**a) Sector Azul**

Estacionamientos delimitados con líneas de color azul para residentes y no residentes, previo abono de la cuota que corresponda.

Las personas residentes podrán estacionar en los sectores azules enclavados en su zona por tiempo indefinido y sin abonar tasa adicional alguna.

Ez-egoiliarrentzat gune horretan aparkatzeko baimendutako gehieneko denbora 4 ordu izango da.

Ez-egoiliarrek, haientzat gehieneko denbora tartea amaitu ondoren, alde egin beharko dute sektoretik eta gunetik eta ez dute itzultzerik izango gutxienez hiru ordu igaro arte. Beste gune bateko sektore urdina erabiltzerik izango du, betiere ez badu bertan aparkatu aurreko hiru orduetan.

Para las personas no residentes, el tiempo máximo permitido para el estacionamiento en el mismo sector será de 4 horas.

Una vez finalizado el período máximo de estacionamiento para la persona no residente, deberá abandonar el sector y la zona y no podrá regresar a él hasta transcurridas, al menos tres horas. Podrá utilizar el sector azul de otra zona siempre y cuando no haya estacionado en él en las 3 horas previas.

**b) Sektore berdea**

Marra berdez mugatutako Txandatze Altuko aparkalekuak. Guztientzat, bakoitzari dagokion kuota ordaindu ondoren, ordu eta erdikoa izango da aparkatzeko denbora tarte maximoa.

Behin denbora maximo hori igarota, erabiltzaileak sektoretik eta hura dagoen gunetik alde egin beharko du eta ez du itzultzerik izango hiru ordu igaro arte.

Egoiliar, gremio edo baimen bereziduna izateak ez du ezein gunetako sektore berdean aparkatzeko baimenik ematen.

**b) Sector Verde**

Estacionamientos de Alta Rotación delimitados con líneas de color verde, en el que el período máximo de estacionamiento para toda persona, previo abono de la cuota que corresponda será de hora y media.

Trascurrido el tiempo máximo deberá abandonar el sector y la zona en el que esté no pudiendo volver a él hasta pasadas 3 horas.

La condición de residente, gremio o autorización especial no constituye título habilitante para estacionar en el sector verde de ninguna zona.

**c) Sektore laranja**

Marra laranjaz mugatutako aparkalekuak, sektorea kokatzen den guneko egoiliarrak diren pertsonentzako esklusiboak direnak.

**c) Sector Naranja**

Estacionamientos delimitados con líneas de color naranja exclusivos para las personas habilitadas con la condición de residentes de la zona en que se halle el sector.

**3.3. Trantsizio-kalea**

Ondorengo taulan agertzen diren kaleetan bizitokia duten pertsonek, ezarritako kuota ordaindu ondoren, dagokien guneko egoiliarren erregimenaren eraginpean jarduteko aukera izango dute.

| **2. Gunea** |
|---|
| Askatasun Etorbidea 14, 16, 17, 18, 19, 20, 20A, 21, 22, 23 eta 25 |
| **3. Gunea** |

**3.3 Calle de transición**

Las personas que residan en las calles descritas en la siguiente tabla, podrán acogerse al régimen de residentes en la zona correspondiente, previo abono de la cuota establecida.

| **2. Gunea** |
|---|
| Askatasun Etorbidea 14, 16, 17, 18, 19, 20, 20A, 21, 22, 23 eta 25 |
| **3. Gunea** |

| |
|---|
| Alluitz 1A, 1, 2, 3, 4, 5, 5A, 6, 7, 8, 9 eta 11<br>Frantzisko Ibarra 9, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 18, 20, 22, 24<br>Juan Olazaran |
| **4. Gunea** |
| Faustebekoa auzunea |

| |
|---|
| Alluitz 1A, 1, 2, 3, 4, 5, 5A, 6, 7, 8, 9 eta 11<br>Frantzisko Ibarra 9, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 18, 20, 22, 24<br>Juan Olazaran |
| **4. Gunea** |
| Faustebekoa auzunea |

**3.4. Guneen eta sektoreen banaketa**

**1. GUNEA – Planoa II. Eranskinean**

**Gune urdina – Ez-egoiliarrentzat gehienezko aparkatze-denbora, 4ordu.**

- Antso Estegiz Zumardia (Komentukale-Larrasoloeta)
- Erretentxu
- Intxaurrondo (Laubide-Balbino Garitaonandia Plaza)
- Juan Mari Altuna (Kurutziaga-Matxinestarta)
- Komentukalea (Garitaonandia Plaza-Antso Estegiz Zumardia)
- Kurutziaga (Juan Mari Altuna-Gernikako Arbola plaza)
- Laubideta
- Matxinestarta
- Montevideo (Olleria-Pablo Pedro Astarloa)
- Olleria (Matxinestarta-Montevideo)
- Pablo Pedro Astarloa (Montevideo-Matxinestarta)
- San Frantzisko
- Santasusanoste
- Txatxiena

**Sektore laranja – Esklusibotasuna egoiliarrentzat.**

- Arandoñotorre
- Fondo de Saco Laubideta
- Kurutziaga (Andra Mari-Juan Mari Altuna)
- Monagotorre
- Montevideo (Pablo Pedro Astarloa-Zumalakarregi)

**3.4 Distribución de las Zonas y Sectores**

**ZONA 1 - Plano en Anexo II**

**Sector Azul - Estacionamiento máximo para no residentes, 4h.**

- Antso Estegiz Zumardia (de Komentukalea a Larrasoloeta)
- Erretentxu
- Intxaurrondo (de Laubideta a Balbino Garitaonandia Plaza)
- Juan Mari Altuna (de Kurutziaga a Matxinestarta)
- Komentukalea (de Garitaonandia Plaza a Antso Estegiz Zumardia)
- Kurutziaga (de Juan Mari Altuna a Gernikako Arbola plaza)
- Laubideta
- Matxinestarta
- Montevideo (de Ollería a Pablo Pedro Astarloa)
- Olleria (de Matxinestarta a Montevideo)
- Pablo Pedro Astarloa (de Montevideo a Matxinestarta)
- San Frantzisko
- Santasusanoste
- Txatxiena

**Sector Naranja – Exclusividad para residentes.**

- Arandoñotorre
- Fondo de Saco de Laubideta
- Kurutziaga (de Andra Mari a Juan Mari Altuna)
- Monagotorre
- Montevideo (de Pablo Pedro Astarloa a Zumalakarregi)

**2. GUNEA – Planoa III. Eranskinean**

**Gune urdina – Ez-egoiliarrentzat gehienezko aparkatze-denbora: 4ordu.**

- Askatasun Etorbidea (Zabale-Herriko Gudarien kalea)
- Galtzareta
- Geltoki
- Herriko Gudarien kalea (Galtzareta-Bruno Maurizio Zabala eta Jose Miel Barandiaren-Oiñiturri)
- Jose Miel Barandiaran
- Herriko Gudarien kalea
- Oiñiturri
- San Agustinalde
- San Rokebide (Zabalekoa-Galtzareta)
- Zabalekoa

**Sektore berdea. Txandatze altua – Gehienezko aparkatze-denbora: 90 min.**

- Zumalakarregi

**ZONA 2 - Plano en Anexo III**

**Sector Azul - Estacionamiento máximo para no residentes, 4h.**

- Askatasun Etorbidea (de Zabalekoa a Herriko Gudarien kalea)
- Galtzareta
- Geltoki
- Herriko Gudarien kalea (de Galtzareta a Bruno Maurizio Zabala y de Jose Miel Barandiaran a Oiñiturri)
- Jose Miel Barandiaran
- Herriko Gudarien kalea
- Oiñiturri
- San Agustinalde
- SanRokebide (de Zabalekoa a Galtzareta)
- Zabalekoa

**Sector Verde. Alta rotación - Estacionamiento máximo, 90 min.**

- Zumalakarregi

**3. GUNEA – Planoa IV. Eranskinean**

**Gune urdina – Ez-egoiliarrentzat gehieneko aparkatze-denbora, 4ordu.**

- Agirre Lehendakaria
- Dario de Regoyos
- Ermodo (Trenbide Kalea-Landako etorbidea)
- Fray Juan de Zumarraga
- Frantzisko Ibarra (Landako Etorbidea-Mikeldi Kalea)
- Juan Antonio Abasolo
- Mikeldi
- Landako Etorbidea (Mikeldi-Frantzisko Ibarra).
- Oiz
- Sasikoa (Trenbide Kalea-Alluitz).
- Trenbide Kalea
- Tronperri
- San Ignazio Auzunea
- Saibi

**Sektore laranja – Esklusibotasuna egoiliarrentzat.**

**ZONA 3 - Plano en Anexo IV**

**Sector Azul - Estacionamiento máximo para no residentes, 4h.**

- Agirre Lehendakaria
- Dario de Regoyos
- Ermodo (de Trenbide Kalea a Landako etorbidea)
- Frai Juan Zumarraga
- Frantzisko Ibarra (de Landako Etorbidea a Mikeldi Kalea)
- Juan Antonio Abasolo
- Mikeldi
- Landako Etorbidea (de Mikeldi a Frantzisko Ibarra)
- Oiz
- Sasikoa (de Trenbide Kalea a Alluitz)
- Trenbide Kalea
- Tronperri
- San Ignacio Auzunea
- Saibi

**Sector Naranja – Exclusividad para residentes.**

- Anboto
- Urkiola

**4. GUNEA - Planoa V. eranskinean**

**Gune urdina – Ez-egoiliarrentzat gehieneko aparkatze-denbora: 4ordu.**

- Arripausueta auzunea
- Artzetaungana
- Gallanda
- Ibaizabal auzunea
- Juan Mari Altuna (Untzillatx-Gallanda)
- Landako Etorbidea (Oiz-Urko)
- Muruetatorre auzunea (polikiroldegiaren eta atletismo-pistaren arteko aparkalekua barne)
- Olleria (Untzillatx-Gallanda)
- Txibitena auzunea
- Untzillatx
- Urko

**Sektore berdea. Txandatze altua – Gehieneko aparkatze-denbora: 90 min.**

- Landakoko anbulatorioa

**Sektore laranja – Esklusibotasuna egoiliarrentzat.**

- Muruetatorre ( 1 Atik 3Ara)

## II. KAPITULUA
## APARKATZE-ARAUTUKO SISTEMA

**4. artikulua.- KUDEAKETA-, ZAINTZA- ETA KONTROL-SISTEMA**

Ordenantza hau beteko dela bermatzeko helburuarekin, beharrezko bitarteko materialak eta pertsonalak dituen kudeaketa-, zaintza- eta kontrol-zerbitzua ezarriko da.

Erregimen desberdinen erregistroarekin eta zaintzarekin eta kontrolarekin lotutako kudeaketa erantzukizun nagusia TAO zerbitzua esleitu zaion enpresarena da.

**5. artikulua.- SEKTORE URDINEN ETA BERDEEN EZAUGARRIAK**

- Anboto
- Urkiola

**ZONA 4 - Plano en Anexo V**

**Sector Azul - Estacionamiento máximo para no residentes, 4h.**

- Arripausueta auzunea
- Artzetaungana
- Gallanda
- Ibaizabal auzunea
- Juan Mari Altuna (de Untzillatx a Gallanda)
- Landako Etorbidea (de Oiz a Urko)
- Muruetatorre auzunea (incluido el parking entre el polideportivo y la pista de atletismo)
- Olleria (de Untzillatx a Gallanda)
- Txibitena auzunea
- Untzillatx
- Urko

**Sector Verde. Alta rotación - Estacionamiento máximo, 90 min.**

- Ambulatorio de Landako

**Sector Naranja – Exclusividad para residentes**

- Muruetatorre (de 1A a 3A)

## CAPITULO II
## SISTEMA DE ESTACIONAMIENTO REGULADO

**Artículo 4.- SISTEMA DE GESTIÓN, VIGILANCIA Y CONTROL**

Al objeto de garantizar el cumplimiento de la Ordenanza se establece un Servicio de Gestión, Vigilancia y Control dotado de los medios materiales y personales necesarios.

Las gestiones relacionadas tanto con el registro de los distintos regímenes como con la vigilancia y el control, están encomendadas fundamentalmente a la empresa adjudicataria del servicio de OTA.

**Artículo 5.- CARACTERÍSTICAS DE LOS SECTORES AZULES Y VERDES**

**5.1.**- Edozein motordun ibilgailuren erabiltzaileak ordainketa egitean matrikula zenbakia ere adierazi beharko du, eta hala, ez du ibilgailura itzuli beharko tiketa bertan uzteko. Tiketak bakarrik tiket-makinetan eta erabiltzaileak ordainketa-frogagiri moduan eskatzen badu banatuko dira.

**5.1.**- La persona usuaria de cualquier vehículo de motor, introducirá con el pago, su nº de matrícula de forma que no sea necesario retornar a su vehículo para depositar en él el ticket, emitiéndose este último únicamente en las máquinas expendedoras y como resguardo de pago a petición de la persona usuaria.

**5.2.**-Aparkatzeko gehieneko denbora sektorerako ezarritakoa izango da, eta dagokion tarifa ordaintzea eskatzen duen aparkatzeko gutxieneko denbora 15 minutu izango da.

**5.2.**- El tiempo máximo de estacionamiento será el establecido para el sector, considerándose el tiempo mínimo de estacionamiento, a efectos del cobro de la tarifa correspondiente los 15 minutos.

**5.3.**- Sistemak aparkatze-denbora baimenduta dagoen gehieneko denborara bitarte luzatzen uzten du, betiere denbora tarte hori dagoeneko amaitu ez bada eta luzapena hasieran ezarritako denbora amaitu baino lehenago eskatzen bada.

**5.3.**- El sistema permite prolongar el tiempo de estacionamiento hasta el máximo permitido, siempre que no se haya consumido dicho periodo y la prolongación se solicite antes de finalizar el periodo inicialmente dispuesto.

**5.4.**- Eskatutako aparkatze-denbora igaro ondoren, erabiltzaileak ibilgailua dagoen sektore urdinetik edo berdetik erretiratu beharko du, eta ezingo du bertan aparkatu hiru ordu igaro arte.

**5.4.**- Transcurrido el periodo de aparcamiento solicitado, la persona usuaria deberá proceder a la retirada del vehículo del sector azul o del sector verde en el que se hallare, no pudiendo volver a estacionarlo en el mismo hasta transcurrido un período de tres horas.

**5.5.**- Aparkatze-denbora egun batetik bestera luzatzeko aukera egongo da, tiket-makinetatik eta horretara zuzendutako adimendun gailu digitaletarako aplikazio informatikotik (app).

**5.5.**- El tiempo de estacionamiento podrá ser prolongado de un día para otro, tanto desde las máquinas expendedoras como desde la aplicación informática para dispositivos digitales inteligentes (app) habilitada para ello.

**6.-artikulua.- ORDUTEGIAK.**
Aparkatze-erregimena astelehenetik ostiralera egongo da indarrean, bi egun horiek barne eta jai-egunetan izan ezik, 9:00etatik eta 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

**Artículo 6.- HORARIOS**
El régimen de estacionamiento estará vigente de lunes a viernes, ambos inclusive, salvo festivos, en horario de 9:00 a 13:30 y de 16.00 a 20.00 horas y, los sábados, salvo festivos, en horario de 9:00 a 13:30.

**7.- artikulua - TARIFAK**
Une bakoitzeko tarifak Udalak onartuko ditu eta dagokion Ordenantza Fiskalean jasoko dira.

**Artículo 7.- TARIFAS**
Las tarifas serán las aprobadas en cada momento por el Ayuntamiento y, estarán recogidas en la correspondiente Ordenanza Fiscal.

**8. artikulua.- SALAKETAGATIKO ORDAINKETA**

Kudeaketa-sistemak egindako salaketak

**Artículo 8.- ABONO DE DENUNCIAS**

El sistema de gestión proporciona la posibilidad

artxibatzeko aukera ematen du 16. artikuluko A eta B motako arau-hausteetan, dagokion tasa ordaindu ondoren, baldin eta ordainketa ordaindutako denboratik bi egun baliodun baino lehenago egiten bada.

de archivar las denuncias efectuadas con ocasión de la comisión de las infracciones de los tipos A y B del artículo 16, previo pago de la tasa correspondiente, siempre que el pago se lleve a cabo sin que se haya sobrepasado dos días hábiles desde la finalización del tiempo abonado.

Ordainketa parkimetroetan bertan egin beharko da, edo bestela, gaitu daitezkeen beste bitarteko telematiko batzuen bidez.

El abono habrá de efectuarse en los propios parquímetros, o por los demás medios telemáticos que, en su caso, se puedan habilitar.

Ordaindu beharreko zenbatekoa dagokion Ordenantza Fiskalak urtero ezartzen duena izango da. Ordainketa horrek ez du esan nahi salatutako ibilgailuak dagoen gunean aparkatuta jarrai dezakeenik; berehala utzi beharko du hura, gaikuntza-titulurik ez badu behintzat. Hala egiten ez badu, legez ezarritako kasuetan Udalak ibilgailua bide publikotik erretiratzeko eta hura udal-gordailura lekualdatzeko eskubidea du.

La cantidad a abonar será la que se establezca anualmente en la Ordenanza Fiscal correspondiente. Dicho abono no supone que el vehículo denunciado pueda continuar estacionado en la zona en que se hallare, debiendo abandonarla de forma inmediata, salvo que obtenga el título habilitante. En caso contrario, el Ayuntamiento se reserva el derecho de retirar el vehículo de la vía pública y trasladarlo al depósito municipal en los casos legalmente establecidos.

## III. KAPITULUA
## ERREGIMENAK

## CAPITULO III
## REGÍMENES

**9. artikulua- EGOILIARRAK**

**Artículo 9.- RESIDENTES**

**9.1.-** Egoiliar izateak erabiltzailea gune bateko sektore urdinean eta sektore laranjan aparkatzeko gaitzen du, eta ez da baliodun gainerako sektoreetan. Bakar-bakarrik Durangoko Oinezkoen Eremuak arautzen dituen Ordenantzaren I eranskinean deskribatutako egoiliarrek izango dute 1. gunean zein 2. gunean aparkatzeko aukera.

**9.1.-** La condición de residente habilita a estacionar en el sector azul y en el sector naranja de una zona, no siendo válida en el resto de ellas. Únicamente los residentes descritos en el anexo I la Ordenanza reguladora de las Zonas Peatonales podrán estacionar tanto en la Zona 1 como en la Zona 2.

**9.2.-** Urte natural bateko indarraldia izango du (dagokion urtekoa), eta bere prezioa dagokion Ordenantza Fiskalean ezarritakoa izango da.

**9.2.-** El periodo de vigencia coincidirá con el año natural a que se refiere y su precio será el establecido en la Ordenanza fiscal correspondiente.

**9.3.-** Durangoko Udalak aukera izango du interesdunari Durangoko egoitza-eraginkorra egiaztatzen duen agiria eskatzeko edo ofizioz egiaztatzeko.

**9.3.-** El Ayuntamiento de Durango podrá comprobar de oficio o requerir a la interesada para que acredite la residencia efectiva en Durango.

**9.4.-** Pertsona bati bigarren baimen bat eman ahalko zaio, bigarren ibilgailua bere ezkontideak edo aurreko/ondorengo lehenengo mailako senitarteko zuzen batek erabiltzen

**9.4.-** Podrá concederse una segunda autorización para una misma persona, cuando el segundo de sus vehículos sea utilizado por su cónyuge o ascendiente/descendiente en

badu, betiere pertsona horiek ibilgailuaren jabearen etxe berean erroldatuta badaude eta elkarrekin bizi badira, eta ibilgailuaren aseguru-polizan gidari nagusi gisa agertzen badira.

**9.5.-** Edonola ere, gehienez hiru baimen banatuko dira etxebizitza bakoitzeko.

**9.6.-** Ordenantza honen helburuetarako, ibilgailuaren jabetzaren arabera bi egoiliar-kategoria bereizten dira:

9.6.1.- Ibilgailua pertsona fisiko baten jabetzan duen egoiliarra.

9.6.2.- Ibilgailua pertsona juridiko baten jabetzan duen egoiliarra.

Jarraian, bete beharreko baldintzak eta egoiliarren kategoria bakoitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa xehetzen dira:

9.6.1. eta 9.6.2. ataletan adierazitako dokumentuen jatorrizkoak eta fotokopia bana aurkeztu beharko dira, eta biak alderatuko dira.

**9.6.1.- IBILGAILUA PERTSONA FISIKO BATEN JABETZAN DUEN EGOILIARRA.**

**Baldintzak**

**a)** Eskatzailea Udal Erroldan pertsona fisiko moduan alta emanda egotea eta bizitokia egoiliar-egoera eskatzen duen TAO Gune horretako eremuan izatea.

**b)** Ibilgailua eskatzailearen jabetzakoa izatea.

**c)** Ibilgailua Durangoko Udalaren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren (TMIZ) erroldan alta emanda egotea eta dagozkion ordainketak eginak izatea. Zerga ordaintzen duen etxebizitzak bat etorri behar du a) atalean ezartzen denarekin. Salbuetsita egongo dira eskaera lehenengo aldiz egiten duten pertsonak, urte horren hasieran bigarren eskuko ibilgailua erosi badute.

línea recta, primer grado, siempre que éstos estén empadronados y residan habitualmente en el mismo domicilio de la persona titular, figurando como conductor/a principal en el seguro del vehículo.

**9.5.-** En todo caso, el número de autorizaciones por domicilio no excederá de tres.

**9.6.-** A efectos de esta Ordenanza se distinguen dos categorías de residentes teniendo en cuenta la propiedad del vehículo:

9.6.1.- Residente con vehículo en propiedad de persona física.

9.6.2.- Residente con vehículo en propiedad de persona jurídica.

A continuación, se detallan los requisitos que deben cumplir, así como la documentación a presentar en cada categoría de residente:

De los documentos señalados en los apartados 9.6.1.y 9.6.2. se acompañará fotocopia, exhibiéndose el original para su cotejo.

**9.6.1.- RESIDENTE CON VEHÍCULO EN PROPIEDAD DE PERSONA FÍSICA.**

**Requisitos**

**a)** Que la solicitante sea una persona física dada de alta como tal en el Padrón Municipal y su residencia se encuentre dentro del ámbito territorial de la Zona OTA para la que se solicita la condición

**b)** Que el vehículo sea propiedad de la persona solicitante.

**c)** Que el vehículo esté dado de alta en el Padrón del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica (IVTM) del Ayuntamiento de Durango y al corriente del pago. El domicilio en el que se paga el impuesto debe coincidir con el establecido en el apartado a). Estarán exentas aquellas personas cuyo vehículo de segunda mano haya sido adquirido a comienzos del mismo año en el que se realice la solicitud por vez primera.

**d)** Egoiliar-egoera eskatu zaion ibilgailua autoa, ibilgailu mistoa, hiru gurpileko ibilgailua edo kuatrizikloa izatea.

**Dokumentazioa**

**a)** Eskaera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta.

**b)** Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionala, Bizileku Txartela edo Pasaportea. Edonola ere, nortasun agiri nazionalean agertzen den bizitokiak Udal Erroldan agertzen denaren berbera izan beharko du.

**c)** Ibilgailuaren fitxa teknikoa.

**d)** Zirkulazio-baimena.

**e)** Aseguru-poliza, 9.4. artikuluan jasotzen den kasua bada.

**9.6.2.- IBILGAILUA PERTSONA JURIDIKO BATEN JABETZAN DUEN EGOILIARRA**

**Baldintzak**

